



2018eko APIRILAREN 17 KO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2018/04/17

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2018-03-27KO Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2.-GAEL elkartearen diru laguntza eskaera, Gipuzkoako Areto Futbol taldeak mundu txapelketa jokatzeko Gironara joateko.
- 3.-Gipuzkoako mendizale federazioaren proposamena aztertu eta dagokiona erabaki .
- 4.-San Juan bidea Altuna y Uriak erabiliko duela eta honen inguruan dagokiona erabaki.
- 5.-Rokodromo edo kirol gunen berriaren likidazioa onartzea.
- 6.-Galderak eta eskaerak .

1.-2018-03-27 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-03-27ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait



zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

2.-GAEL ELKARTEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA , GIPUZKOAKO ARETO FUTBOL TALDEAK MUNDU TXAPELKETA JOKATZEKO GIRONARA JOATEKO .

Gipuzkoako Areto Futbol elkarteko koordinatzaileak, munduko txapelketa jokatzeko Gironara joaten direla eta bertako gastuak finantziatzeko diru laguntza eskaera bideratu dutela jakitera ematen da.

2017eko urrian, Baliarraingo guraso batek GAELen entrenamenduak astero eta partiduak horrela gertatzen denean egiteko lekua eskatu zuen, eta bertako gastuek nola izango ziren galdetzen zuen.

Udalak, gurasoari era hionetara erantzun zion posta elektronikoko bidez:

“Argiaren kostua baloratu da, eta kostua zenbatekoa den ikusita handia a da baina ondorengoa erabaki da:

1.-Udalak bere gain argiaren kostua hartzea eta hori laguntza moduan kontsideratzea. Hau da, iaz emandako laguntzaren ordaina bezala udalak bere gain hartzen duena 2018 urterako laguntza bezala izatea .

2.-Argia pizteko giltza behar dela eta zuei ez bazaizue gaizki iruditzen entrenatzaileari giltza uztea.”

Horregatik, ERABAKI DA:

1.-2017-2018 IKASTURTEAN ZEHAR ESKATZEN DEN DIRULAGUNTZAREN ORDAINA , PILOTALEKUAREN ARGI INDARARREN KONTSUMOA LAGUNTZA BEZALA KONTSIDERATZEA, BESTE LAGUNTZARIK EMAN BEHARRIK GABE .

3.-GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN PROPOSAMENA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .

Gipuzkoako mendizale federazioaren elkarteak, SL-GI5ibilbidea homologatzeko, dagokion txostenak egiten dituztela eta bide honi dagokion txostena egiteko proposamena luzatu du, kostua 215 euro gehi beza izanik.



Mahaikideen aldetik, bidearen nondik norakoa ikusita, honako adierazpen hauek egin dira:

.-Bidearen zati handiena Altzagako udalerria dela .
.-Baliarraingo udalerrinari dagokion zatia oso laburra dela .guzti hau kontutan hartuta , ondorengo urratsak emateko geratu da :

1.-Mendizale federazio elkarteari adieraztea bidearen zati txikia dela Baliarraingo udalerrinari dagokiona.

2.-Altzagako udalarekin hitz egitea , bide honen inguruan .

4.-SAN JUAN BIDEA ALTUNA Y URIAK ERABILIKO DUELA ETA HONEN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKI.

Baliarraingo Saneamendua eta ur hornidura lanen direla eta , Obraren exekuzioa burutzen duen Altuna y Uria enpresak San Juan herri bidea erabiliko duela ikusi da .

San Juan bidea , Baliarraingo udalerriko bide nagusia da , herriaren zati handiena bide honi lotuta dagoelako , baserri , etxe , zelai eta bestelako instalakuntza .

Bide honen egoera ere , zoladura dagokionez ez da nahiko litzatekeen bezalakoa, eta udalari esfortzu handia sortzen dio bide honen mantenimendu lanak egitea .

Horregatik , bidearen erabilera egokia egin ahal izateko , dagokion karga baino handiagoa erabili behar denean , udaleko baimen berezia behar da.

2019eko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari ofizialean, argitara eman zen, bidearen erabileraren araudiari ondoen eranskina onartu zitzaion:

“Bide publikoen erabilpena: Fiantza eta tasari buruz prezioa mantentzen dira, hau erantsiaz:

Bidearen erabilera kontutan hartuaz, erabilera modalitatea, karga eta bidaien kopurua aldagaiak erabiliaz, udalak fiantzaren zenbatekoa kalkula dezake bai erabilera pribatuak egiten dutenean edo erakunde publikoak egiten dutena.”



Eranskin hnetan oinarrituta , udal honek, bidearen ezaugarriak, aurreikusten den erabilera, karga eta bidaiak kontutan hartuta, ondorengoa ERABAKI DA:

1.-San Juan bidearen erabilera berezia egiteagatik , Altuna Y Uria enpresari 6.000 eurotako fiantza edo abala udal honetan utzi dezala eskatzea .

2.-San Juan bidearen erabilera egiten hasi aurretik , bidearen egoera elkarrekin aztertu eta frogak jasotzea .

3.-Erabilera amaitu eta dagoen bezala bidea uzten bada , utzitako abala itzultzea .

4.-Eta obra publikoa denez , tasarik ez kobratzea .

5.-ROKODROMO EDO KIROL GUNE BERRIAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA.

Rocodromo egiteko lanak Tarragó enpresari esleitu zitzaizkion 10.178,94 euro beza kanpo .

Ordainketaren erdia , obrak hasi zirenean egin ziren , eta obrak amaitu zituztenean likidazioa luzatu zuen .

Obraren amaiera , pilotalekuaren fatxadaren egoera zuzen utzi ez dutelako, egindako kaltearen balorazioa egin zen .

Balorazioa hau izan zen :

Fatxada garbitzeko makinariaren alokairua	110,00€/eguneko
Makinariaren garraioa	140,00€
Fatxadaren margoketa	600,00€
Guztira	850,00 €
Beza %21	178,50€
Guztira	1028,50 €

Tarragok adostasuna gertu du , kaltearen balorazioan eta, ordaintzeko geratzen dena 850 euro gutxitu ditu.

Beraz, ERABAKI DA:



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

1.-TARRAGOREN LIKIDAZIOA ONARTZEA, ETA 4.239,47
EURO GEHI BEZA ORDAINTZEA.

6.-GALDERAK ETA ESKAERAK .

BAT.-Euskaraldia .-Alkateak adierazten du, euskaraldia, maiatzaren 4ean izango dela Baliarraingo udalerrian .

BI.- Bixente Zubeldiak kexa bat adierazi du, bere basoko bidera lur jauzi bat joan delako eta bere ustetan Aspisaletxeko bidean egindako lanen ondorioa izan dela.

Kexa hau argitzeko, hurrengo asteartean 13:00etan bertan biltzeko deia luzatzea erabaki da.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen Alkateak 21:00etan.

Alkateak

Idazkariak